

**ZANGO ERABILKETA EUSKAL HERRIAN: LEITZAKO
«KARNABALAK»**

JOSE ANTONIO QUIJERA

SARRERA

Inauteriei buruz mundu osoan ikerlari asko mintzatu dira. Beharbada haien egiturak oso iraunkorrak direlako azterketa sistematikoruntz bultzatzen. Edo denboran oso jai mugatuta direlako, neguaren zehar luzatzen. Baina zihur, jai mota desberdin hauen egiturak pertsonaren muintan oinarrituta eta sustraituta daudelako.

Eta Leitzako inauteriak zergatik aztertu? Bada, jai honetan guk oso garrantzitsua kontsideratu egin dugun xehetasun bat, beste batzuen artetik, agertzen delako. Hauxe zango erabilkera da.


Beste ikerlari batzuek Leitzako inauterietaz idatzi duten arren guk ez dugu errito honi buruz idazlan horietan inongo informapenarik aurkitu (1).

Euskal Herriko gaur egungo lurraldeetan ez dugu honelako beste erabilpen erritual motako adibiderik aurkitu. Hor kokatzen da garrantzia. Oso hurbil, aintzineko Euskal Herriko beste lurraldeetan, gure historioaren mugarri ezin galtzekoak diren bi lekutan oraingoz erabiltzen dira. La Rioja-ko Anguianon dantzetan eta Landaetako alde zingiratsuetan ur eta lokatza gainetik ibiltzeko, gutxienez artzaiek zango luzeak horrela erabili ohi dituzte. Leku hauetan euskara galduta, baina ez kultur tradizionalaren iturria.

Beste adibide asko Lurraren beste toki desberdinetan aurki ditzakegu: Leoneko Maragaterian Penintsulan; dogondarren dantzetan, makondotarrenean eta Afrikako beste herri askotan; Namuren (Belgika); maoritarren dantzetan (Zelanda Berrian); etab. Leku askotan jai eta dantzetan erabiltzen dira, besteetan lan tresnak bezala, edo haur jostailua izan daitezke ere.

Leitzako datu honen bidez zangoen karta pixkatxo bat gehiago osatzen da, hutsune bat betetzen, Euskal Herrikoa.

(1) Ikusi J. Garmendiaren «Carnaval en Navarra», 167-169 or. eta «Inñauteria-El Carnaval Vasco», 189 or.



1. Leitzaoko atsoak, karnabalak debekatu baino lehen.

Tresna hauen sinbologismoa, gure ustez, bi maila osagarritan aurkitzen da: Alde batetik handitasun errituala, eta nekazaritza errito desberdinak bestetik. Bainan arazo hau oraingoz baztertu egin behar dugu. Hori ez da idazlan honen helburua, Euskal Herrian zango erabilketa erritualaren adibidea argitaratzea baizik.

LEITZA, OHAR BATZUK

Leitza Nafarroako ipar-mendean kokatuta dago. Basaburuko herri handiena da. Mendiz inguraturik, larehun metrotan itsas gaineko haranean aurkitzen da. Hau nekazari eta artzaiei herria da, bere inguruetako hainbeste herrixka bezalaxe.

Bere egutegian jai desberdin asko azaltzen dira. Esate baterako jai nagusiak Uztailan, San Juan eguna eta bere bezpera, Gabonak, inauteriak etab. Alde horretatik Leitza ez da Euskal Herriko beste herri asko eta askorengandik urrutiratzen.

Herrian bi dantza mota interesgarri agertzen dira: Soka-dantza eta ingurutxoa (2).

(2) Bi dantza mota hauei buruz ikusi J.A. Urbeltzen «Dantzak» liburua, 84-89 or

LEITZAKO KARNABALAK edo IOTEGIK (3) Garizuma hasi baino aurreko igande, astelehen eta asteartean ospatu dira. Bainan 1936-eko guda bukatu ondoren legez debekatuta izan ziren. Orduan Leitzako biztanleek jaiari izena aldatzea pentsatu zuten. Izen berria PESTA TXIKIAK izan zen eta urtarrileko hirugarren igandean, hurrengo bi egunekin, antolatuta izan dira gaur egun arte. Hala ere jaia pobreago bihurtu zen. Horrela iritsi zaizkigu inauteri hauek. Idazlan honetan guda baino lehenagoari buruz informapena erabiliko dugu, urte horietan jaia ondo ezagutu zuten informatzaileekin (4).

LEITZAKO INAUTERIAK

Lehen esan dugun bezala Leitza KARNABALAK Garizuma hasi baino aurreko igandean hasten ziren. Egun horretan eta bi hurrengoetan Leitzeko hauzo eta baserri guztietatik jendeak ZOMORROTUTA herri erdira jotzen zuen.

Jendea edozein erataz jantzi ziteken. Dana zen egokia. Etxeetako edo zer gauza hartuz gero: Ezkonketarako jantziak eta beste aintzinekoak: DANA ALDERANTZIZ EGIN BEAR ZAN. Aldaketa honetatik abereak ez ziren libratzen zomorratzen baitzituzten ere, hortarako jantzi handiak biltzen. Ez zen arraroa norbait bere asto zomorratuta lagundurik taberara sartzea ikusi, eta bi hauek edan ere.

Orokorki pertsona mozorratuak ATSOAK deitzen ziren. Lehen azaldu dugun bezala hortarako edo zer gauza egokia zen, bainan bazeuden ohitura interesgarri batzuk. Askok buru gainean SONBREROA jartzen zuten. Hauek gorro koniko antzekoak dira eta Leitza oso handiak eta zabalak egiten ziren. Horretarako laztoz kapela bati hega handia jarri behar zitzaion eta honen gainetik egur edo burdinarizko egitura koniko altu bat. Gainetik kolore askotako oihala eta luma batzuk. Baita ere margoizko zintak eta beste apaingarriak. Gaur egun kolorezko paperak erabiltzen dira batez ere. Guk, egun, putre luma luzeak, katagorri larruak eta beste apaingarri desbedinak ikusi ditugu.

Aurpegia beti estalita zeramaten, inork ez zitzaion ezagu. Hau oso garrantzitsua zen eta horretarako bakoitzak bere etxean jantzi eta zapia aurpegi gainean jartzen zuen. Ez zuten kentzen inoren aurretik.

Askotan tunika antzeko jantzi luzeak gorputze gainean janzten zituzten, ea txonkartiletaraino eta oihal estanpatuak erabiliz.

Besteek ardi larruz janzten ziren. Eskilak eta zintzarriak genian lotuz ahal zen zarata handiena sortzeko.

(3) J. Garmendiak 1972-an «iotezik» izena jaso zuen. Ikusi «Carnaval en Navarra», 167 or.

(4) Informatzaileak: Aizpurua jaun-andrea, 1981-eko otsailaren 23-an Lasartenea etxean, Leitza. Baita ere Martin Aranburu jauna egun eta herri berberan. Datu hauek Gorka Bazterretxeak lagunduz jaso nituen.



2. Atsoak, 1985eko karnabaletan.

Eskuetan TXERRI MASKURIE haurrak jotzeko.

Horrelako janzkerak Euskal Herriko leku askotan oso ezagunak izan dira inauterietan, eta Nafarroako ipar eta mendebaldeko lurraldeetan batez ere, bereziki honelako gorroak.

Bainan baita ere, eta normalki arratsaldeetan KUADRILLE berezia agertzen zen. Gizon talde bat bi metrozko ZANGO gainean altzatuta. Egurrezko bi makil luze hauen erdian baino pixka bat gorago plataforma txiki bat oina bermatzeko zegoen eta iztarretan sokaz lotzen ziren. Zutik jartzeko lehenengo horma altu batean eseri eta han zangoak lotu behar zituzten. Berdin tresnak kentzeko.

Gizon hauen janzkera lehen ikusi duguna izan ziteken edo baita soldaduzkatik ekarritako KAPOTE BERDE zahar haiek. Ala eta guztiz ere aurpegia beti estalita. Horrela ibiltzen ziren kaleetatik, oso azkar askotan, lehioetatik etxe barruetara begiratzeko eta ahal zutena arrapatzen, alde batetik bestera mugitzen etab.

Atsoen atzetik beti haurrak zirikatzen. Horrelako esaerak haien ahoz entzutea gauza normalena zen: «ATSO, ATSO, ATSO,...» edo baita ere «ATSO, ATSO, TXERRI BAÑO FALTSUAGO». Eta atsoak, jakina, haurrengana korrika eta maskuriz jo.

Astelehen eta astearte goizeetan MUTIL KUADRILLEK baserrietatik ESKEA egiten ibiltzen ziren. Bi mutil talde, bakoitza hauzo dezberdinetatik ibiltzen, etxe edo baserrietan emaitza batzuk jasotzen zebiltzaten: TXORIZUE, ARRAUTZEK, GAZTA, ARDUE, DIRUE, etab. Talde batean TXISTULARIE, eta bestean AKORDEOIE zihoan, beti MARTSAK jotzen. Mutilek eskea egiteko BLUSA BELTZA, PAÑUELU



3. Atsoak, 1985.eko karnabaletan.

ZURI ETA URDIÑE ETA TXAPELA jazten zituzten, beste edozein galtza eta abarka lagunduz.

Eguerdiko ordubietan bukatu ondoren danak herriko ostatura zuzentzen ziren jasotako janaria bazkaltzeko.

Arratsaldeetan herriko enparantzan DANTZA SUELTXUE egoten zen, txistuz edo akordeoiz. Han biltzen zen herri osoa.

Iluntzerakoan dorreko kanpaiek AMEZKILLE jotzen zuten, otoi unue. Orduan atsoek zapia aurpegitik kendu behar zuten. Bainan inork ez ezagutzeko hau egiteko bakoitza bere etxera zuzentzen zen. Nonbaitek zapia ezbazuen kentzen ALGUAZILLEK egiten zioten.

Egun hauetan ez zen INGURUTXOA dantzatzen. Baita ere artzaiak ez ziren mendira ateratzen.

BUKATZEKO HITZAK

Haurren jostailu gisan zangoak Euskal Herriko beste leku batzuetan izan direla badakigu. Guk Leitza bertan ikusi ahal izan dugu haur taldea metro bateko zango gainetik ibiltzen edo ibiltzen ikasten. Gure informatzaileek azaldu ziguten bezala Leitza leheneren haurrek txikitandik zangoetan ibiltzen ikasten zuten. Hau oso gauza normala zen. Horrexegatik inauterietan bi metrozko tresna hauek erabil zitzeketen. Bainan bigarren kaxu honetan zalantzarik gabe sentzu erritualean.